

## PRENTSA OHARRA

### **Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak euskararen sustapenean lankidetzan jarraitzeko Hiruko Ituna berritu dute**

- 2021-2025 urteetarako egongo da indarrean gaur sinatutako hitzarmena
- Hezkuntzan, aisialdian, eremu sozioekonomikoan, kirolean edo ikerketan euskararen sustapena bermatzea du helburutzat hitzarmenak

Baiona 2021/10/22

Kultura eta Hizkuntza Politika sailburu eta Eusko Jaurlaritzaren bozeramaile Bingen Zupiriak, Nafarroako Foru Komunitateko Herritarrekiko Harremanetarako Kontseilari Ana Ollok eta Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakari Antton Curutcharryk hiru erakundeen arteko 2021-2025 urteetarako lankidetzako protokoloa berritu dute euskararen sustapenean elkarlanean jarraitzeko.

2017ko uztailaren 3an, Iruñean sinatu zuten hiru erakundeek lehenengo Lankidetzako Hitzarmena eta balorazio positiboa eginda eta alde guztiek elkarlanean jarraitzeko erakutsi duten interesa kontutan hartuta berriro sinatzea adostu dute.

Gaur berretsitako hitzarmena elkarlanetik eta hiru erakundeek elkarri dioten errespetutik eta lurralde errealtate politiko eta soziolinguistikotik egin dela adierazi dute aldeek, beti ere, legeek lurralde bakoitzari ematen dizkioten eskumenen esparruan.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu Bingen Zupiriak Baionan egindako prentsaurrekoan adierazi duenez “lau urte hauetan ikusi dugu zeinen garrantzitsua den bakoitzaren aukera eta erritmoak errespetatuz lan egitea; guztiok ez ditugu aukera eta baliabide berak, baina sare beretan, helburu berari eta egiteko modu partekatuek bilatuz lortu dugu euskararen lurraldeen arteko lankidetzako sendotzea”. Zupiria sailburuak gaineratu duenez, beste lau urterako hitzarmena berritzeak esan nahi du “azken lau urte hauetan egindako bideari atzera begiratzea. Egindakoaz jabetuz, aurrera zein urrats eman nahi ditugun elkarrekin pentsatu eta adostea; eta lehen esandako horretatik, urrats horiek nola eman nahi ditugun ere adostea. Lidergotza partekatua nahi dugu; uste dugu horrela egin ahal izango dugula aurrera bakoitzaren lurraldetik eta bat egiten dugun euskararen lurralde horretara begira”.

Hitzarmenak euskararen sustapenean lankidetzako bultzatzeko helburua du eta besteak beste, hezkuntza, helduen euskalduntzea, euskararen erabilera, ikerketak edo eta euskarari buruzko gogoeta zehazten ditu.

#### **Helburuak**

Euskarazko irakaskuntza garatzeko lankidetzaren alde egin beharra ikusten dute hitzarmenaren hiru sinatzaileek eta horretarako ikasleen mugikortasuna eta goi mailako ikasketak beste lurralde baten egin nahi dituzten ikasleentzat unibertsitateko edo eskoletako sarbide aukerak eta moduak aztertuko dira.

**INFORMAZIO GEHIAGO / MÁS INFORMACIÓN**

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ

Gainera helduen euskalduntzearen arloan egiten diren politiketan lankidetzara ere bultzatzen dute eta elkarlanean arituko dira euskararen gaitasun-maila ebaluatzeko eta egiaztatzeko probak eta sistemak diseinatzerakoan.

Aisialdian, kirolean, ingurune digitalean, arlo sozioekonomikoan eta euskarazko hedabideetan euskararen erabilpena sustatu beharra eta horretarako bideak ere zehazten ditu Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa gaur sinatu duten hitzarmenak. Horretarako eremu horietan dauden euskarazko baliabideak eta esperientziak aztertu eta partekatuko dira. Antton Curutcharry, Euskararen Erakunde Publikoko lehendakariak zentzu horretara du lankidetzara honen izaera estrategikoa azpimarratu: "hizkuntza politikan bakoitzak daukan esperientzia, jakitatea eta informazioaren partekatzea eta trukatzeari garrantzitsua da, baita lankidetzara teknikoaren bideratzea hizkuntza politikarentzat estrategikoa diren gai batzuentzat, hedabide edo aisialdietan adibidez". EEPko lehendakariak bestalde adierazi du "azken hilabeteetan bizi izan dugun krisi sanitarioak erakutsi dauku euskararen erabilpena zoin hauskorra den eta baitezpadakoa sail horretan sekulan baino gehiago indarrak batzea eta ematea".

Gaur Baionan berretsitako hitzarmenak euskarari buruzko gogoetan, sustapenean eta prestakuntzan ere indarrak batuta aritzeko nahia biltzen du. Horretarako hiru aldeek elkarrekin zein bakoitzak bere aldetik eratzen dituzten programa eta foroetan parte hartu ahal izango dute.

Ikerketa soziolinguistikoaren arloan berriz, datuen bilketa elkarlanean egitea zehazten du hitzarmenak beti ere euskararen eremu osorako bateragarriak eta aldi berean lurralde bakoitzeko hizkuntza politikak egituratzeko baliagarriak izateko. Informazio guzti hori elkarri trukatzeari ere adostu dute. Honen harira Nafarroako Foru Komunitateko Herritarrekiko Harremanetarako Kontseilari Ana Ollok adierazi duenez, arlo honetan "azpimarratzekoa da Euskararen Adierazle Sistema (EAS). EAS datu-multzo bat da, era eguneratuan eta diakronikoan euskarak gizarte-eremu guztietan duen egoeraren berri ematen duena, euskararen lurralde osoan. Adierazle sistema hau ezinbesteko tresna da hizkuntza politika publikoa egoki kudeatzeko, eta era berean, informazio-iturri interesgarria da herritarrentzat, eta bereziki sektore espezializatuentzat (ikertzaileentzat edo euskara teknikarientzat)".

Gainera hiru aldeak lankidetzara arituko dira, aukeren arabera, euskararen sustapena helburutzat duten proiektuak europar finantzaketetan aurkeztu jarraitzeko.

Jarraipena

2025era bitartean egongo da indarrean gaur sinatutako Hiruko Ituna eta Nafarroako Gobernuak Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordetza eta Euskararen Erakunde Publikoa izango dira bere kudeaketaz arduratuko direnak. Horretarako hiru aldeek adostutako Batzorde Misto bat eratuko dute; batzordea gutxienez urtean behin bilduko da hitzarmenaren jarraipena egiteko.